

Arrazakeriaren aurkako begirada hezkuntzan

Galderak, oharrak eta hezkuntza-konpromisoak
HIZLARIAK: Vorigii Bita / Yania Concepción / Carlota
Momobela / Ana Bueriberi

PROIEKTU BAT: Munduko Medikuak Euskadi **GAI HONETAN ELKARLANEAN**
ARITU DIRA: Carlota Momobela, Vorigii Bitu, Yania Concepción eta Ana Bueriberi
DISEINUA, MAKETAZIOA ETA ILUSTRAZIOA: Karina Senatore **ORDENANTZA:**
Argitalpen hau doakoa da, eta ez da onartzen merkataritzarako erabiltzea. Zilegi
da erreproduzitzea, iturria behar bezala aipatuz. Gida hau doan deskargatu
daiteke, PDF formatuan, hemen: <https://conociendoafrica.semilleducativas.org/>



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Aurkibidea

(1)

Egiturazko arrazakeria ikasgelan

Lehenengo artikulua

P 5-11

Vorigii Bitia

(2)

Trauma arraziala: zauri ezkutatua

Bigarren artikulua

P 13-17

Yania Concepción


(3)

Arrazakeria hezkuntza sisteman

Hirugarren artikulua

P 19-25

Carlota Momobela



(1)

Egiturazko arrazakeria ikasgelan

*Haurtzaro beltzak hezkuntza
sistema arrazista batean*

Hezkuntza sistema ez da inola ere berdintasunezko gunea; aitzitik, gure gizarteko berdintasunik ezaren eta aurreiritzien isla izan da, historikoki. Egiturazko arrazakeria sakon errotuta dago gure hezkuntza sistema osatzen duten erakundeetan, eta iraunarazi egin ditu haurtzaro beltzenganako bazterketa eta diskriminazioa, haiei ukatuz aukeretarako berdintasunezko sarrera eta mugatuz beren garapen integrala.

Pribilegio zuria hezkuntza sisteman

Pribilegio zuria oinarrizko kontzeptua da egiturazko arrazakeriaren azterketan; sotilki ageri da, baina iraunkorki, ikasgeletan eta, hedaturaz, hezkuntza sisteman. Ikasketa plan eurozentrikoak erakustea, zigorrak eta neurritz kanpoko diziplinazko irakaspen praktikoak..., haurtzaro zuriak ardatz harturik eta haiei begira moldatu da hezkuntza sistema. Haur zuriek abantaila dute, irakasten zaizkien edukietan isla baitute beren nortasunak eta esperientziek. Aitzitik, haurtzaro beltzek aurre egin behar diete irudikapen positiborik ezari eta estereotipo kaltegarriak betikotzeari. Testuliburuek ez dute historia behar bezain sakon azaltzen edo distortsionatuta azaltzen dute, komunitate ez-zurien ekarpenei eta borrokei dagokienez, zehazki, eta, hala, kalte egiten diete haien partaidetzaren eta autoestimua zentzuari.

Belztasuna eta oztopo sistemikoak

Belztasuna alderdi kulturalak nahiz sozialak eta politikoak barne hartzen dituen identitate konplexua da. Hezkuntza sistema arrazistan, ordea, hainbat desabantaila eta eragozpen dakartzan estigma bihurtu da. Haur beltzek aurre egin behar izaten diete hezitzaileen aurreiritzi eta igurikapen negatiboak, zeinak adierazten baitira, praktikan, tratu desberdina, arreta gutxiago eta aukera gutxiago emanez. Gainera, inauterietan eta abarretan haurrak txinatarrez, indiarrez edo beltzez mozorrotzeko jarduerak "hezigarriak" oharkabeko arrazakeria zantzuak islatzen dituzte eta bazterketa areagotzen dute.



Haurtzaro beltzarenganako inpaktua

Hezkuntzako egiturazko arrazakeriak ondorioak biziki sakonak dakarzkie haurtzaro beltzei. Irudikapen positiborik ezak, igurikapen apalek eta aurreiritziek kalte egin diezaiekete ikasle arrazializatuen autoestimuari eta motibazioari, eta horrek ondorioz ekar dezake potentzial akademikoa eta pertsonala mugatzea. Hezkuntza sistemako esperientzia negatibo horiek luzera begirako inpaktua eragin dezakete haur beltzen garapen emozional, sozial eta kognitiboan, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren desabantailak eta bazterketa zikloak betikotzen dituzte.

Ondorioa

Hezkuntza arloko egiturazko arrazakeria arazo konplexua da, eta dimentsio anitzeko ikuspegia eta aldaketarako borondatea behar dira egoera aldatzeko. Funtsezkoa da pribilegio zuria eta haurtzaro beltzen bazterketa betikotzen dituzten egitura zapaltzaileak deuseztatzea. Eta, horretarako, premiazkoa da ikasketa planak berrikustea, irakasleak kultura eta arraza konpetentzietan trebatzea, politika inklusiboak inplementatzea eta eremu seguruak eta berrespenezkoak sustatzea ikasle guztientzat, edozein arraza edo etniatakoak direla ere. Ekitatearekin eta justiziarekin benetako konpromisoa hartuz soilik eraiki ahal izango dugu hezkuntza sistema benetan inklusiboa, non haurtzaro beltzak loratuko baitira eta lortuko baitute beren goreneko potentziala garatzea, egiturazko arrazakeriak ezarritako mugez kanpo. Erantzukizun kolektiboa da oztopo horiek deuseztatzea eta haurtzaro guztientzako etorkizun justu eta ekitatiboagoa sortzea.

Lehenengo artikulua / © Vorigii Bita / Egiturazko arrazakeria ikasgelan / Ezartzeko moduko funtsezko zenbait estrategia

Jarraian, ikastetxeek edo hezkuntza erakundeek ezartzeko moduko funtsezko zenbait estrategia zehaztuko ditugu.

1. **Ikasketa planak eta hezkuntza materialak berrikustea eta eguneratzea:** Garrantzi handikoa eta premiazkoa da ikasketa planek eta ikasmaterialek gure gizartearen arraza eta etnia aniztasuna islatzea. Horretarako, komunitate arrazializatuen historia, ekarpenak eta esperientziak modu egiazko eta zehatzean landuko dituzten edukiak txertatu behar dira. Arlo honetan aldaketa handia eragin dezakegu, halaber, ikasgeletan erabiltzen diren liburuei arreta jarritz, historiako errealitate guztiak kontuan hartzen dituzten historia liburu unibertsalen aldeko apustua eginez, arraza-gutxiengoaren errealitateak ikusezin bihurtzea betikotzen duten narratiba eurozentrikoak nagusitu ez daitezen. Gainera, funtsezkoa da arraza- eta etnia-jatorri desberdinetako idazle, zientzialari, artista eta irudi historikoak aintzat hartzea, arraza guztietako ikasleek izan ditzaten irudikapen positiboak eta ereduak. Horrek haurtzaro beltzen partaidetza, autoestimua eta harrotasuna sustatzen ditu, baita, aldi berean, kultura aniztasunaren ulermen sakona eta begirunezkoa ere.


Jarraian, ikastetxeek edo hezkuntza erakundeek ezartzeko moduko funtsezko zenbait estrategia zehaztuko ditugu.

- 2. Politika eta jarduera inklusiboak implementatzea:** Eskolek inklusioa eta arrazen arteko berdintasuna sustatzeari begirako politikak eta jarduerak garatu behar dituzte. Eskola ingurunean arrazagatiko edonolako diskriminazio oro debekatzea eta zigortzea eskatzen du horrek, ikasle guztientzako ingurune segurua eta begirunetsua bermatu ahal izateko. Gainera, funtsezkoa da aukeraberdtasuna eta hezkuntza-baliabide eta -programetarako berdintasunezko sarbidea bermatzea, haurtzaro beltzek topatzen dituzten oztopo sistemikoak deuseztatuta.



3. Irakasleak trebatzea eta sentsibilizazioa: Irakasleek garrantzi handiko egitekoa dute ikaskuntza ingurune inklusibo eta aurreiritzirik gabekoa sortzen. Hala, funtsezkoa da haiek kulturarteko eta arrazakeriaren kontrako konpetentzietan trebatzea. Horrela, gai izango dira ikasgelan aurreiritziak eta jokabide diskriminatzaileak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko. Garrantzizkoa da, halaber, dibertsitatea aintzat hartzeko eta errespetua sustatzeko jarduerak bultzatzea.

4. Komunitateak parte hartzea eta aliantzak eraikitzea: Egiturazko arrazakeriaren kontrako borroka ezin dute eskolek bakarrik beren gain hartu. Ezinbestekoa da komunitateak zeregin horretan parte hartzea eta aliantzak eraikitzea organizazioekin, tokiko ekintzaileekin eta adituekin. Eskolen ahalegina aberastu dezakete lankidetzaren horiek, jakintza, baliabide eta ikuspegi baliotsuak eskainiz. Gainera, funtsezkoa da inklusioaren eta arrazakeria baztertzearen garrantziari buruzko hezkuntza-programak garatzea guraso eta familiei begira. Horrela, ulerkeraren partekatua izateaz gainera, ikuspegi koherente eta koordinatu bat landu ahal izango da ikasleen bizitzaren esparru guztietan egiturazko arrazakeriari aurre egiteko.



(2)

Trauma arraziala: zauri ezkutatua

Trauma arrazialak arrazakeriak eta diskriminazioak eragindako kalte psikologiko, mental eta emozionalari erreferentzia egiten dio. Esperientzia traumatiko baten aurreko erreakzio normala da, eta inpaktu esanguratsua eragiten die hura bizi duten pertsonen osasun fisiko eta mentalari. Honela defini daiteke trauma arraziala: arrazakeriaren, mikroerasoen eta gorabehera arrazialen ondorio fisiologikoa eta psikologikoa. Esperientzia zaila da ahoz azaltzeko, ez baitira sozialki aintzat hartzen eta besteak bezalakoak ez gara edo partaide ez gara aditzera ematen duten mezu sotil nahiz agerikoetan oinarritu ohi baitira.

Bigarren artikulua / © Yania Concepción / Trauma arraziala: zauri ezkutatua


KAUSAK:

Trauma arraziala askotariko faktoreek eragina izan daiteke, honako hauek barne:

1. Zuzeneko arrazakeria esperientziak, hala nola diskriminazioa -enpleguan, etxebizitzan, eskolan, osasun arretan- edo polizia indarkeria.
2. Zeharkako arrazakeria esperientziak, hala nola indarkeria arrazialaren aurreko edo hedabideek pertsona arrazializatuei buruz emandako irudi negatiboaren aurreko esposizioa.
3. Belaunaldi arteko arrazakeria esperientziak, kontakizun, sinesmen eta portaeren bidez belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak.


SINTOMAK:

Trauma arrazialaren sintomak aldatu egiten dira pertsona batengandik bestearengana, baina, oro har, sintoma hauek agertu ohi dira, besteak beste: *01. Antsietatea, 02. Depresioa, 03. Trauma ondoko estresa, 04. Autoestimua apala, 05. Bakartze eta alienazio sentimendua, 06. Arazo fisikoak, hala nola buruko mina, urdaileko gorabeherak eta loaren nahasmendua, 07. Hiperzaintza, 08. Pentsamendu hausnarkari negatiboak, 09. Kontzentratzeko zailtasunak, 10. Pertsona zurienganako mesfidantza, 11. Larritasun sentazioa, 12. Etorkizunarekiko itxaropenik eza, 13. Disoziazioa.*



Trauma arrazialak arrazakeriak eta diskriminazioak eragindako kalte psikologiko, mental eta emozionalari erreferentzia egiten dio.

OSASUNEAN DUEN INPAKTUA: Trauma arrazialak eragin nabarmena izan dezake hura bizi duten pertsonen osasun fisikoan eta mentalean. Osasun-arazo jakin batzuk izateko arriskua handitu dezake; honako hauek izatekoa, esaterako: 01. Bihotzeko gaixotasunak, 02. Hipertentsioa, 03. Diabetesa, 04. Loaren nahasmendua, 05. Substantzien abusua eta 06. Suizidio-ahaleginak.



NOLA AURRE
EGIN:

Trauma arrazialari aurre egiteko irtenbide bat baino gehiago dago. Hala ere, badaude pertsonari bere esperientziei aurre egiten eta suspertzen lagun diezaioketen estrategia jakin batzuk. *HONAKO HAUEK, ADIBIDEZ:*

1. **Trauma aitortzea:** trauma arrazialari aurre egin ahal izateko lehen urratsa mota horretako trauma bat bizi izana aitortzea da. Garrantzizkoa da trauma bizi duen pertsonari gogoraraztea ez dagoela bakarrik eta pertsona askok ulertzen dutela zer bizitzen ari den.
2. **Laguntza bilatzea:** trauma arraziala bizi duten pertsonentzako zenbait baliabide daude. Esate baterako, terapia, laguntzako talde arrazializatuak eta komunitateak.
3. **Nork bere burua zaintzea:** garrantzizkoa da suspertze-prozesuan nork bere osasun fisiko eta mentala zaintzea. Esate baterako, dieta osasungarria hartzea, behar bestelo egitea eta ariketa fisikoa egitea.

ERREFERENTZIA:

- Almeida, D. M., & Chin, J. L. (2010). Racial microaggressions and the Asian American experience. *Cultural Diversity and Ethnic Minority Psychology*, 16(2), 126-136.
- Bryant-Davis, T., & Ocampo, K. A. (2017). Racism and mental health: The impact of racism on the mental health of people of color. *American Psychologist*, 72(6), 541-554.
- Sue, D. W., & Sue, D. (2016). *Counseling the culturally diverse: Theory and practice* (7th ed.). Hoboken, NJ: Wiley.



(3)

Arrazakeria hezkuntza sisteman

Gaur egun, etengabe egiten dira aurrerapausoak maila guztietan, eta gizarteak biziki heterogeneoak dira horri esker. Testu honetan, aztergai hartuko ditugu heterogeneotasun fenotipikoa eta heterogeneotasun horrek eta iruditeria kolektiboak haurtzaro eta nerabezaro arrazializatuetan duten eragin negatiboa.


Espanian gertatzen den arrazakeriaz mintzatzean, arrazakeriaren ukoa topatzen dugu, haren esanahiaren okerreko ikuspegi baten eta arazoaren sinplifikazioaren ondorioz. Horrek arrazakeria noiz, nola eta zergatik gertatu zen aztertzeraz garrantzitsua, fenomeno gaur egungo egoeran behar bezala kokatzeko eta hura deuseztatzearen alde lan egin ahal izateko.

Kontuan harturik arrazakeria fenomeno kulturala dela – kolonizazioan baitu jatorria, europar nagusitasun aktresna modura baliatutako kolonizazioan –, aise ohartuko gara arrazakeriatik edaten duen iruditeria kolektiboak sendotu egiten dituela zuriak ez diren pertsonen izate, egite eta sentipenari buruzko estereotipoak eta okerreko ikuspegiak. Eta orobat ohartuko gara gizartean existitzen bada hezkuntza sisteman ere existituko dela. Alde batera utzirik hezkuntza sisteman arrazakeria existitzen denik ukatzeko joera eta horrek berekin dakarren gutzia, honako ardatz hauei helduko diegu: irakasleen jarduera profesionala eta ikasle arrazializatuenganako tratua, eta horrek ikasle horientzat eta haien familientzat dakartzan ondorio sozialak, akademikoak eta osasun mentalekoak.

Etorkizuneko hezkuntzako profesionalen trebakuntzan jorratzen diren gaietan, hezkuntzak aniztasun funtzionala duten pertsonak aintzat hartzearen eta hezkuntza haien egoerara egokitzearen garrantzia azpimarratu ohi dira; baina ez da berdin jokatzeko haurtzaro edo/eta nerabezaro arrazializatuekin edo etorkinekin lan egiteko garaian. Arraza ez da hautematen ikasleen nortasunari, autokontzeptuari, autoestimuari eta, hortaz, bizi proiektuaren eraikuntzari zuzenean eragiten dien garrantzizko ezaugarri gisa. Haurtzaroek eta nerabezaroek oso adin txikietatik barneratu ohi dute kanpoko aurreiritzien arabera autokontzeptu bat, zeinaren inguruan eraikitzen baitoaz beren nortasuna, deshumanizazioan eta gutxiespenean oinarrituriko narratibak eraisteko beste eredu batzuen ordezkartzaren errefortzurik gabe, eta, hala, beren ahalmenenganako mesfidantza sortzen zaie.



01. Narratibaren joera, 02. Jokabide arrazistei garrantzia kentzea, 03. Arrazaren eta eskola errendimenduaren arteko erlazioa eta 04. Baliabiderik eta protokolorik eza.



Hezkuntzako arrazakeriaz hitz egiten dugunean, arreta berezia jarri behar zaie funtsezko 4 puntu hauei: 01. Narratibaren joera, 02. Jokabide arrazistei garrantzia kentzea, 03. Arrazaren eta eskola errendimenduaren arteko erlazioa eta 04. Baliabiderik eta protokolorik eza.

Hirugarren artikulua / © Carlota Momobela / Arrazakeria hezkuntza sisteman / Funtsezko 4 puntu

NARRATIBAREN JOERARI

JOKABIDE ARRAZISTEI GARRANTZIA KENTZEA

Narratibaren joerari dagokionez, aipatzekoa da ikuspegi eurozentrikoaren nagusitasuna, non Europak bere kultura aldarrikatzen baitu eredu global eta aitzindari gisa; horren ondorioz, zuria ez den guztia gutxiesten eta baliogabetzen duten premisa kolonialisten arabera ulertzen da bestetasuna. Hezkuntzaren esparruan, historian isla du ikuspegi horrek. Esaterako, ez dago kolonialismoaren eta esklabotza prozesuaren gaineko inolako gaitzespen moralik, ez baita horiei buruzko inolako erantzukizunik onartzen eta europarrek Afrikan eta Latinoamerikan egindakoei buruzko halako ikuspegi etorkorra bultzatzen baita. Narratiba horri loturik, gainera, ez dago pertsona arrazializatuen erreferentziarik gure haurtzaro eta nerabearoei ahalduntzen laguntzeko eta aditzera emateko munduko aurrerapen handien parte garela eta izan garela beti, historia ezabatzeko saiakerak gorabehera.

Aurreko guztia eskolan gertatzen diren jokabide arrazisten oinarri da. Gainera, **jokabide horiei** garrantzia kendu ohi zaie, justifikatu nahirik iraganeko egoera gaurkoaz bestelakoa zela eta gaur egungo *modus operandi*-a, arrazista ez izateaz gainera, “*etorkinekin abegikorra*” dela; eta, horretan, berriz ere agerian geratzen da zer-nolako etorkortasunaz tratatzen diren arazo hauek. Izan ere, negazionismoa

gorabehera, eta ikusiezin bihurtzeko saiakerak gorabehera, eragindako ikasleek salatu egiten dituzte. Eraso arrazista txiki horiek agerian uzten dute haurtzaro eta nerabezaro arrazializatuak heldutzat hartzeko joera eta iruditeria arrazistan oinarrituriko aurreiritziak eta usteak betikotzen dituzten jokabide helduak haiengan estrapolatzeko joera.

ARRAZAREN ETA ESKOLA ERREN- DIMENDUAREN ARTEKO ERLAZIOA

Berdinen taldean era horretako egoerei aurre egin behar izatea nahikoa ez balitz bezala, aurre egin behar diote, gainera, irakasle taldearen jarduera blaitzen duen iruditeria kolektiboari. Hain zuzen ere, horren guztiaren eraginez, irakasleek elkarri lotu ohi dizkiote **ikasleen jatorria** eta **gaitasun kognitiboa**, batak bestea baldintzatzen ez duen arren. Irakaskuntza jarduera baldintzatzen duten aurreiritzi ugarien ondorioz, haurtzaro eta nerabezaro arrazializatuentzat ikasle eta irakasle arteko erlazioa ez da zerotik abiatzen, maiz, eta tratua baldintzatuta egoteak aukera berdintasuna ukatu ohi die ikasle horiei. Horrek berekin dakar askotan “*iragarpena berez betetzea*”; alegia, norbaitengan igurikapen apalak edo hutsak proiektatzearen ondorioz igurikapen horiek betetzea.

BALIABIDERIK ETA
PROTOKOLORIK
EZA

Aurrez azaldutako guztiaren arabera, kontuan hartu beharra dago **baliabide nahikorik ezak** edo baliabide gabeziak – eta, horri loturik, irakasleen prestakuntzan arraza ikuspegia aintzat ez hartzeak– ondorioz dakarrela curriculum eta **protokolo antiarrazistarik ez izatea**, zeina baita ikasle arrazializatuentzat ez ezik haien ingurune guztiarentzat kaltegarri. Funtsezkoa da deseraikuntza, bai hezkuntzari loturiko eragileena, baita hezkuntzako profesionalena eta komunitatearena ere, gizarte benetan inklusibo bat eraiki ahal izateko, aintzat hartuko dituen askotariko ikuspegiak, besteren ahotik hitz egitea saihestuko duena eta giza eskubideak aitzakiarik gabe babestuko dituen, giltzarria baita haurtzaro eta nerabezaro askok osasun mentalarekin loturiko arazoak izan ditzaten saihesteko. *Horregatik guztiagatik, molde eta arlo guztietako arrazakeria azalera ateratzen eta hari aurre egiten jarraituko dugu hezkuntza sisteman.*

